

LA ANUNCIATA IKASTETXEA



Aurtengo Donostiako Eskolako Agenda 2030ean bi ziklotako programari amaiera eman diogu. Aukeratuak Garapen Jasangarriko Helburua 7. izan da: Energia eskuragarri eta ez-kutsatzailea. Eta zehazki, hurrengo leloan oinarritu gara: **ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA.**

2022-2023 ikasturtean gaiaren inguruko diagnostikoa egin genuen eta horrekin batera, ondorio batzuetara iritsi ginen, lehentasun batzuk markatuz. 2023-2024an berriz, lehentasun horietatik abiatuta esku-hartze plan bat diseinatu eta gauzatu dugu. Hurrengo lerroetan, gure ikastetxean egindako lanketa eta programan barne dauden gainontzeko ikastetxeekin adostutako ekimenak ezagutu daitezke.

2022-2023 ikasturtean DIAGNOSTIKOA

HH: Energiatz bizi!

Hasteko, energia alferrik gastatzen ari den irudia aurkeztu genuen. Irudia behean eta gaizki dagoena adierazi genuen. Jarrera hauek ekiditeko proposamenak garatu genituen. Haurrak motibatuzko, arduradunaren rolari energia babeslearen erantzukizuna gehitu genion. Haurrek rol berri hau ilusioz eta erantzukizunez burutu zuten.

- **Ondorioak:** Haurrek badakite erantzukizun kolektiboa dela, mundu guztiak izan behar du gertatzen ari denaren berri. Izan ere, haurrek esaten zuten bezala, energia alferrik gastatzen da eta hori ez da bidezkoa, guztioi eragiten digutelako.

LH 1-2: Lurra sendatuko dugu

Gure eguneroko ohitura batzuk Planeta gaixotzen dutela ohartzeko, irudi batzuen bidez, egoera ezberdinak aztertu genituen eta gaizki zeudenak nola hobetu aipatu genituen. Norberaren ohiturak zeintzuk ziren sakondu eta horien arabera, hobetzeko konpromisoak hartu genituen. Energiaren garrantziaz jabetu eta aurrezteko moduak barneratu genituen.

- **Ondorioak:** Gure inguruan hainbat gabezia daudela, autoen gehiegizko erabilera, airearen kutsadura...

Konpromisoak: Energiaren babeslearen rolaekin jarraitzea eta ardura gehiago izatea (korridore guztien argiak itzaltzea, patiora joan aurretik, eguraldi eguzkitsua egiten duenean jolas txokoetako argiak itzali eta eguzkiaren argiaz gozatu). Ahal izanez gero, oinez edo bizikletaz etorri ikastetxera. Komuneko txorrota beti itxi behar dela.

LH 3-4: Nire etxeak ere energia asko behar du

Proposatutako bideoa eta jarduerak landu ondoren, argi ikusi genuen Planeta bakarra daukagula eta zaindu behar dugula, horrela jarraituz gero Planetarekin bukatuko dugulako. Energia ondo erabili behar dugu eta gure ohiturak aldatu behar ditugu egoera hobetzeko.

- **Ondorioak:** Egunerokotasunean energia gehiegi erabiltzen dugu, etxeetan nahiz hirian, eta honek kutsadura sortzen du. Ohiturak aldatu beharko ditugu egoera aldatzeko.

LH 5-6: Murriztu energia kontsumoa, klima aldaketari stop!

Motibazio fasean Ekored taldeko ikasleek aurkeztu zuten gai berria. Elkarrekin mugikari bat osatu genuen gelako konpromisoekin. Ondoren, bideoa eta proposatutako jarduerak landu genituen. Ikasi genuen zeintzuk diren energia motak eta iturriak, energia berriztagarriak eta ez berriztagarriak, eta batez ere, energia berriztagarrien garrantzia gure ingurua zaintzeko.

- **Ondorioak:** Egunerokotasunean energia gehiegi erabiltzen dugu eta askotan, beharrezkoa ez denean. Ez da aprobetxatzen energia naturala espazio publikoetan.

Konpromisoak: Behar ez dugunean, itzali argiak eta eguzkiaren argia gehiago aprobetxatu. Aparatu elektrikoak desentxufatu behar ez ditugunean. Hotza egiten duenean berogailua jarri orde, arropa gehiago jantzi. Kotxea gutxiago erabili eta oinez, bizikletaz edo garraio publikoa erabili. Ur iturria itxi behar ez dugunean. Aparatuak izorratzen direnean eta beharrezkoa bada erostea, energia-eraginkortasuna ondo begiratu (A+, A++,...). Bonbillak aldatu behar ditugunean kontsumo baxukoak jartzea. Aparatu elektriko gutxiago erabiltzea.



DBHKO LANKETA

Hasteko, geletan zintzilikailuetan ideia nagusiak eta proposamenak idatzi genituen. Batzuk EA2030ko Ostadar txikietan zintzilikatu ziren. Urteko Energia Egutegia egin genuen, geletan edukitzeko.

DBH 1-2: Auzoko argiztapena eta argi kutsadura

Gure ondorengo lanketak bi atal izan ditu. Batetik, kaleko argiteria ezagutzea eta bestetik, galdetegi baten bidez, hiritarren ohiturak eta iritziak ezagutzea.

- **Ondorioak:** Etxea eta ura berotzeko jendeak gas naturala edo elektrizitatea erabiltzen du. Etxean, led bonbilak, kontsumo baxukoak edo halogenoak erabiltzen dira. Hiriko kalean argi kutsadura dago. Jendeak ahaleginak egiten ditu gutxiago kontsumitzeko (argi naturala aprobetxatu, argi artifiziala itzali, berogailua itzali...). Etxean, jendeak 20°C baino gutxiago jartzen du, nahiz eta berogailua piztuta eduki. Jendeak argiaren faktura ulertzen du.

DBH 3-4: Inor atzean utzi gabe

Pobrezia energetikoa existitzen dela ezagutu genuen. Eta ez dela herrialde txiroen arazoa soilik, gure inguruan ere badagoelako. Gaur egun dugun eredu energetikoa da arazo ugariaren iturri, denok ezin baitugu ordaindu eroso bizitzeko kontsumitzen den energia kopurua. Horretaz ondo jabetzeko, energiari gabeko eguna irudikatu genuen.

- **Ondorioak:** Argi energiari gabeko bizitza oso oso zaila da gaur egun. Egunerokotasunean energia gehiegi erabiltzen dugu, etxeetan nahiz hirian. Komunitate energetikoa sortzeak abantailak ekartzen ditu ingurumenarekiko. Energiaren ohiturak aldatu beharko ditugu egoera aldatzeko.

Konpromisoak: Itzali argiak behar ez ditugunean, bai etxean baita eskolan ere. Argi naturala aprobetxatzea. Kontsumo gutxiko bonbilak jartzea. Garraio pribatua gutxiago erabiltzea. Telebista, ordenagailuak eta antzeko aparatuak itzaltzea erabat, erabiltzen ez direnean. Aparatu elektrikoak erostean A etiketa dutenak erostea. Eskolako Agenda 2030eko proiektu antzekoetan parte hartzea. Dutzak laburragoak egitea. Etxeko tenperatura erregulatzea, energia kontsumoa murrizteko.

BATXILERGOA: Energiar jokatzu, bertakoa kontsumitu

Haize errota parke baten proiektua aztertu genuen. Balizko egoera batean aurrean, roll ezberdinak hartu genituen. Horretarako, binaka informazioa bilatu eta prestatu egin behar izan genuen mahai inguruan azaltzeko.

- **Ondorioak:** Energia eolikoak, nahiz eta berriztagarria izan, baditu bere desabantailak (ingurumena suntsitzen du, baserriarrek lur eremua galtzen dute, mendizaleek ibiltzeko tokiak galtzen dituzte, animalien arriskuak sortzen dira). Ingurumenetik bizi direnek modu batean edo bestean kaltetuta ateratzen dira. Turismo berdea, gaur egun modan dagoena, kaltetuta ere izan daiteke. Aldaketa klimatikoaren alde egiteko energia berriztagarrien erabilerak gero eta zabalagoa izan behar du. Edozein erroten eremua martxan jarri baino lehen oso ondo aztertu behar dira bere abantailak eta desabantailak.

Konpromisoak: Itzali argiak behar ez ditugunean, etxean eta eskolan ere. Argi naturala aprobetxatu eta argi artifiziala, kasu honetan, itzali. Kontsumo gutxiko bonbilak erabiltzea (LED edota antzekoak). Garraio pribatuak (kotxe pribatua) gutxiago erabiltzea eta bere ordez garraio publikoa (trena, autobusa, Topoa) edota bizikleta erabiltzea. Energia kontsumoa murrizteko, etxeko tenperatura erregulatzea. Aparatu elektrikoak erostean, beti A etiketa motakoak erostea.

IKASTETXEEN ARTEKO ELKARKETAK

Ikasturte amaieran, ikastetxean egindako lanketa programan parte hartzen duten gainontzeko ikastetxeekin partekatu genuen. Horretarako hainbat Foro burutu ziren:

- **ESKOLEN ARTEKO FOROA:** Apirilaren 19an, Cristina-Enean LHko ikasleok elkartu ginen eta apirilaren 26an bigarren hezkuntzako ikasleok. Bertan, hartutako konpromisoak eta proposamenak adostu genituen.
- **UDAL FOROA:** Maiatzaren 10an, udaletxera joan ginen Eskolen arteko Foroan adostutako guztia udal ordezkariari helaraztea. Beraien esku geratu zen aurkeztutako proposamenei erantzuna ematea.



PROPOSAMENAK UDAL ORDEZKARIEI

Badaude gauza asko gure esku ez daudenak. Hori dela eta, hainbat proposamen pentsatu genituen Udal ordezkariari helarazteko. Ondoren, Eskolen arteko Foroan gainontzeko ikastetxeekin adostu genituen. Hona hemen gure ikastetxean elkartutako proposamenak:

HH

Gabonetako argiak gabonetan bakarrik piztu eta ez lehenago. Farola zaharrak aldatu eta farola ja-sangarriak eta energetikoki eraginkorragoak jarri.

LH 1-2
LH 3-4

Kotxeen erabilpena hirian murriztea. Garraiobide publikoak indartu eta sustatzea. Kaleko argiak ja-sangarriak izatea.

LH 5-6

Plaka fotovoltaiko gehiago jarri (faroletan eta semaforoetan erabiltzeko). Argien ordutegiak ondo egokitu. Mugikortasun ja-sangarriko proiektuak garatu (garraiobide publikoak elektriko gehiago, garbiketarako kamioak elektrikoak...). Gure hiria bidegorri asko ditu, ildo horretatik jarraitu eta gehiago egin, ondo mantendu eta bultzatu erabilerara. Dirulaguntzak ematea auzokoen erkidegoetarako autokontsumoa bultzatzeko. Bekak edo dirulaguntza ematea unibertsitateetan energiaren inguruan ikerketa gehiago egiteko eta gure ekonomia bultzatzea energia-burujabetzak izateko. Hitzaldiak, informazioa edo gune berezi bat Udaletxean herritar guztientzako irekia. Helburua izango litzateke gaur egungo energia eredu eta ohiturak aldatzea, energia berriztagarriari hauspoa ematea eta kontsumoa eta gastuak murriztea.

DBH 1-2
DBH 3-4

Energia berriztagarriak erabiltzea udaleko erakundeetan. Kalean panel fotovoltaikoak jarri. Kaleko argia behar ez denean itzaltzea, batez ere ordu txikitan. Gabonetako argiak ez ipintzea. Kale ilunetan, farola gehiago jarri. Diru laguntzak ematea energia fakturak ordaintzeko. Tailerra, ekintzak... energia berriztagarriak bultzatzeko.

Batxiler-goia

Semaforoetan eguzki panelak jartzea, OTako makinan bezala. Kaleko argia itzaltzea, jende gutxi ibiltzen denean. Gabonetako argien kopurua gutxiago izatea. Diru laguntzak ematea energia berriztagarri indibidualak jartzeko (etxeko komunitateetan, baserrietan, txaletetan...). Kanpaina desberdinak antolatzea, jendea kontzientziatzeko.



2023-2024 ikasturtean **ESKU-HARTZE PLANA**

Aurreko ikasturteko diagnostikoaz baliatuz, bigarren ikasturte honetan Esku-hartze plana jarri dugu martxan. Bi gai proposatu ziren auzoka bideratu den lanketa honetarako: Energia berriztagarriak hirian eta Hiriko puntu kritikoaren azterketa.

Altza-Intxaurren auzoetako taldean sartu gara eta gure auzoan dauden hiriko puntu kritikoaren azterketa landu dugu.

Hasiera batean, auzoko ikastetxeetatik jasotako ideiak elkartzeko, azaroaren 8an eko-ordezkariek ikasturteko **Eskola arteko lehenengo Foroan** bildu ginen. Hortik aurrera eman beharreko urratsak adostu genituen.

Gaiaren inguruan eskematxo bat prestatu genuen eta adostu genuen zer egin nahi genuen, nola egin eta zein behar genituen udalaren aldetik. Horrela, urtarrilaren 10ean **lehenengo Udal Eskola Foroa** burutu genuen eta auzoko ikastetxeok erabakitako esku-hartzea aurkeztu genien udal ordezkariari.



Bigarren eskolen arteko foroa. Berriz ere ikastetxe desberdinetako eko-ordezkariek apirilaren 17an elkartu gara lortutako emaitzak bateratu eta nola aurkeztu behar genituen erabakitzeko. Jarraian, bigarren Udal Eskola Foroa ospatu da, maiatzaren 22an eta udal ordezkariari gure lanen berri eman diegu. Oraingoan udal teknikariek gain, alkatea eta ekologia eta hirigintzako zinegotziak egon dira gurekin.

ESKU-HARTZEA KALERATZEKO EKINTZAK

Aurtengo EA2030 programa amaitzeko, egindako lanketa eta ikasitako guztia hiritarrek partekatzeak duen garrantziaz jabetuz, Intxaurrendoko kultur-kirol etxean auzoko ikastetxeetako lanen **erakusketa** jarri da ekainean aste batez, auzoko mapak eta puntu ilunen deskribapenak hain zuzen ere.

Hau izanda bi ikasturtetako lanketa energia gaia eta GJH7aren inguruan. Espero zuen interesekoa izana.

Bi ekintza mota egin ditugu:

- **HIRITARREI GALDEZKA:** Gaia sakontasun gehiagorekin aztertzeke asmatan, hiritarrei zuzentzeko galdetegi bat sortu genuen, gure artean ere bete genuena.
Erantzun asko jaso genituen. Galdetegiko galdera bat auzoko puntu ilunen ingurukoa izan da eta puntu mordoxka atera dira.
- **PUNTU KRITIKOAK AUZOAN:** Galdetegien emaitzak kontuan hartuz eta Donostiako udalak bere webgunean argitaratuta duen "Puntu kritikoaren" mapan oinarrituta egin dugu gure lanketa. Biak konparatu ditugu eta konturatu gara, gure askok bat egiten dutela baina beste hainbat proposatu nahi dizkiogu puntu jarraipena egiten duen mahai teknikoari. Gure lanketarako udalak auzoko plano eman digu eta bertan kokatu ditugu guretzako arazotsuak diren puntuak.

